

Aita Iñaki Agirre
Esker Oneko Oroitzapena (2023-07-02)

Ataungo Aiako Mendiurkuiluko semea zen. Lazkaon beneditar egina. Puerto Ricora, oso gazterik, beneditar joana.

Gaur goizean, Lazkaoko beneditarretara, meza ospatzera nindoala eman dit albistea Iñakiren koinatak: Iñaxio hil da, duela hiru egun.

Mezakoan jira asko eman dizkiet Iñakirekin izandako harremani; hobeto esan: esperientziari.

Zuka hitz egiten nion, ez dakit zergatik; ni baino urtebete zaharragoa zen.

«Iñaki, besteak beste, egundoko mesede bat egin didazu bizitza honetan: Puerto Ricon 19 uda (1993tik 2011ra) egin ahal izateko bidea urratu zenidan. Esperientzia zoragarria egiteko aukera izan nuen. Orain, zeruko Aitaren ondora, 19 udatako ez, baizik betiko bizirako joateko aukera egiten lagun diezadazun eskatu nahi nizuke. Ez da Jainkoa bortxatzeko kontua, noiz joan noiz ez; San Paulorekin esan nahi dut: egin bedi zure nahia. Nola nahi den, lagundu iezadazu borondate hori, mihiaz baino gehiago, bihotzez onartzen».

Puerto Ricorako aipatu aukera emateaz gain, etsenplu bikaina eman zenidan. Lazkaon eta Estibalitzen ezagutu nuen Iñaki hura, era deigarrian eraldaturik eta goititurik agertu zenidan Puerto Ricon biok izan genituen harreman apurretan. Zure familiartekoez ere badakite zerbait baino gehiago horretaz. Pentsatzen dut, Puerton Ricon jende askok sumatuko zuela zugaran nik sumatu ahal izan nuena: Iñaki irribarretsu, Iñaki baikor, Iñaki besteri emana, Iñaki dena poz, Iñaki BERE BOKAZIOAZ BETE BETEA. Bai, Iñaki, txundigarria gertatu zintzaizkidan, eta ez naiz batere intsentsuzale.

Gaurko mezan, hauxe izan dut, batez ere, gogoan: BOKAZIOAZ BETE BETEA. Eta horixe eskatu diot Jaunari neuretzat; lagunduko ahal didazu zeuk ere! Horixe eskatu diot Jaunari gurasoentzat: goza dezatela guraso izatearen bokazioaz; horixe bera senar-emazteentzat; horixe apaizentzat; horixe erlijioso-erlijiosentzat; horixe ezkongabe heterosexualentzat; horixe lesbianentzat; horixe gayentzat, horixe transexualentzat; horixe bisexualentzat; horixe I eta Q deituentzat; horixe gizakume guzti-guztientzat. Nork bere bokazioa pozik, gogotik, ausarditsu bizi. Zuk, Iñaki, etsenplu ederra eman didazu. Mila esker,

Askotan eta jende askoz irakurri ohi dugu esandakoa bezalakorik. Zirrargarria da hori bera pertsona ezagun batengan ikustea. Iñaki, Jesusen ondotik, lagundu iezadazu Puerto Rico berri izango dudana zerurako bidaia horretaz Jaunaren borondatea onartzen; lagundu iezadazu neure bokazio pozik bizitzen. Erein ezazu zure biziera alegera eta bizi horren hazia gure mundu honetan. Laster arte.

Lazkao, 2023-07-02
DIONISIO AMUNDARAIN